

Plan Estrategikoari ekarpenak

Indarrean dugun Plan estrategikoaren aldia amaitzen zaigula eta, hurrengoa prestatzeko unea iritsi zaigu. 2.024-2.028 epealdirako Plan Estrategikoa prestatzen hasiak gara eta [galdetegi](#) honen bitartez, Udarregi Ikastolak zuen ekarpenak jaso nahi ditu. Zer nolako hobekuntzak eskuratu nahi zenituzketen datozen urteetan jakin nahi dugu. Plan Estrategikoa, azaroan, Urteko Batzarrean aurkeztuko da. Anima zaitezte zuen ekarpenak egitera!



Herri Urrats

Igande honetan, maiatzak 12, Senperen Herri Urrats ospatuko da. Animatu eta parte hartu!

<https://herriurrats.eus/>



KMK 2024 arropa salmentarako laguntza

Sagardo egunean, maiatzak 19, Kilometrotako arropa salmentarako postu bat jarriko da frontoi inguruan eta horretarako **boluntarioak** eskatu dituzte. Ordutegia **11:30-14:00**.



Jangela-zerbitzuaren erabilera ekainean

Ekainaren 3tik 21era HHko (3 eta 6 urte bitarte) eta LHko ikasleek eskolak goizez bakarrik izango dituzte, alegia, 9:00etatik 12:30era arte.

DBHko ikasleek, ekainaren 3tik 11ra lanaldi jarraia izango dute (8:25-14:30) eta ekainaren 12tik 21era 8:25etik 12:30era.

Beraz, zuen semeak edo alabak **jangela-zerbitzua erabiliko duen edo ez** jakinaraztea beharrezkoa izango da. Horretarako, **maiatzaren 24a** baino lehen, mesedez, idazkaritzan jakinarazi usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz.


Bide batez, **etxera bakarrik joateko baimena** duen edo ez ere adierazi.



Arratsaldeko zaintza ekainean

Ekainaren 3tik 21era, Ageri-aldeko eraikinean **goizeko zaintza** egiten den gelan, arratsaldeko **zaintza-zerbitzua** eskainiko da **14:30etik 16:30era**.

Zerbitzuak aurrera egin ahal izateko gutxieneko taldea osatu beharko da. Zerbitzuaren kostua **65 €** izango da. Izena emateko, mesedez [galdetegi hau](#) bete **maiatzaren 24ra arte**.



Eskola kirola 2024/2025

2024-25 ikasturterako Eskola kirolan parte hartzeko **izen-ematea maiatzaren 13tik 24ra** egingo da.

Eskaintzaren ordutegia eta kuoten taula [hemen](#) dituzue.

Izen-ematea egiteko, [galdetegi hau](#) bete behar da.

Edozein zalantza argitzeko idatzi eskolakirola@udarregi.eus helbidera.



Eskola-kirola bilerak:

- HH 5koentzat eta edozein zalantza argitu nahi duenarentzat, Eskola-kirolari buruzko **informazio-bilera** (Eskola-kirola programa, Usurbilgo eskaintza, Zirimara...) **maiatzaren 13an 16:45ean ikastolako jangelan** egingo da.
- LH 4koentzat 2024-2025 ko Zirimara multikiroleko eskaintzari buruzko informazio-bilera. **Maiazaren 13an 17:30ean ikastolako jangelan**

Honez gain, hemen beste eskaintzen informazioa:

Judo: izena eman nahi duenak irailean egin beharko du, kiroldegira azalduz. Astelehena 17:00etatik 20:00ak bitarte.

Ordutegiak:

Astelehena - asteazkena 17:00 (HH5, LH1, LH2)

Astelehena - asteazkena 18:15 (LH 3, 4, 5)

Astelehena - asteazkena 19:15 (LH6, DBH 1 eta 2)

Igeriketa: informazioa kiroldegiko harreran.

Gimnasia erritmikoa: izena eman nahi duenak eta informaziorako: info@tximeleta.eus

Ordutegiak:

HH5, LH1, 2: astelehena- asteazkena 16:45 - 17:45

LH 3-4: astearteak 16:45 - 18:45

LH5-6: ostirala 17:30 - 18:30

Ziriborro pintura eta eskulan tailerra: informazioa 609413883 (Susana)

Saioak: asteleheneetik ostiralera 16:45-18:00 edo 18:15-19:45

Bertso-eskola: LH4tik DBH3ra .Informazioa 608768539 (Josu)

Saioak: astean behin (eguna zehazteke) 13:30-14:30 ikastolan

Euskal dantzak (Orbeldi): izen-emate eta ordutegien informazioa aurrerago emango da.

Udako aisialdi-eskaintza

Aurten ere Zirimolak, Ikastolen Elkarteko aisialdi-taldeak, prestatu du [udako aisialdi-eskaintza](#). Euskal Herriko ertz guztietako haurrek uda Zirimolarekin batera gozatzeko aukera eskaintzen dute.

Ikastolan bertan eskaintzen diren udalekuak ez dira antolatu Udarregin.

Izen-emate epea asteartean amaituko da. [Informazio gehiago...](#)



Familiantzat orientazio ibilbidea

Maiatzaren 18an, HH eta LHko ikasleei eta beren familiei zuzenduta dagoen Orientazio Ibilbide erraz bat prestatu dugu, taldetxoetan egiteko. Animatu zaitetzte!

Irteera: Txokoaldeko Irisasi Baserriaren albotik.

Irteera ordutegiak: Arratsaldeko 16.30tatik 18.00ak arte. (5 minuturo gutxi gorabehera)

Materiala: Lokatzetan ibiltzeko moduko oinetakoak, ura eta Ipar Orratza (baldin badaukazue).

Izen-ematea egiteko, [galdetegi hau](#) bete behar da maiatzak 16a baino lehen.

KANPO ESPAZIO TALDEAK antolatua GOTren laguntzarekin.

LEHEN HEZKUNTZA

LH 1eko ikasleen irteera

Datorren **asteazkenean**, maiatzak 15, **eguraldi ona badago, LH1eko ikasleek egun osoko irteera egingo dute Oriora.**

Eguraldiak lagunduko ez balu, beste egun baterako utziko lukete.



Hezkidetza, sexuen hezkuntza eta tratu onak eskolan

Harremanak taldearen eskutik zuen seme-alabek hainbat saio jaso dituzte eta orain gurasoentzako saioa antolatu dute. Bertan landuko diren gaiak hauek izango dira:

- Seme-alabekin izan dituzten saioetan zer landu duten azaldu, baita gela zein begiradatik behatu duten ere.
- Haurrak nola ikusi dituzten Hezkidetza, Sexuen Hezkuntza eta Tratu Onei dagokienez: berdinen arteko harremanak, autoestimua, gorputza, emozioak, tratu onak...
- Garapenari dagokionean zein momentutan dauden.



- Gurasoei haurrak gai hauetan laguntzeko gakoak eman.
- Zalantzak jaso eta zuen galderak erantzuteko tartea izango duzue.

NOIZ: Maiatzak 14, asteartea, 17:00etan.

LEKUA: Agerialdeko 3. solairuan.

NORENTZAT: LH5 eta LH6ko gurasoentzat.

LH5 eta LH6ko familiei zuzendutako bilera-deialdia

Urtero bezala, **LH5 eta LH 6ko gurasoak** dira Ikastola eguna antolatzeaz arduratzen direnak.

Hori dela eta, datorren **ostegunean, maiatzak 16, arratsaldeko 17:00etan Ageri-aldeko 2. solairuan** egingo den bilerara deitzen zaituztegu.



DBH

Ikasturte amaierako irteeren kobrantza

❖ DBH1

Datorren **ostiralean**, maiatzak 17, **22 €-ko** kobrantza egingo zaie **DBH 1**eko ikasleei, ikasturte amaierako irteerako azken ordainketa moduan.

❖ DBH2

Datorren **ostiralean**, maiatzak 17, Bertiz-eko irteeraren 3. zatiaren kobrantza egingo da. Kostua **32,00 €** da eta honela banatzen da:

- o Autobusa: 21,00 €
- o Ekintzak + egonaldia: 71,00 €
- o **Guztira: 92 €**
- o **Aurrez-ordaindua: 60 €**




DBH 2ko familiei zuzenduta

HEZKIDETZA PROGRAMAREN arduradunek **DBH 2. mailan talde-harremanen inguruan egindako lanaren berri emango dute**. Aukera bikaina izan daiteke gaiaren inguruan hausnarketa bultzatu eta jokaera egokienak adosteko.

* Bilera eguna: **maiatzak 20, astelehena**

* Bilera ordua: **17:00etan**

* Lekua: **DBHko eraikina**



Lanbide Heziketan aurrematrikula egiteko epea

Maiatzaren 6tik 24ra, Lanbide Heziketan 2024/25 ikasturterako aurrematrikula egiteko epea izango da.